

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Agenda cultural del Gobierno de Navarra para esta semana

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu abenduaren 11tik 17ra bitarteko asterako

Astelehena, 2017.eko abenduak 11

Nafarroako Liburutegiak “Pasadas las 4” izenburuko haurrentzako antzerki-lana antolatu du, “Gloria Fuertes” zikloaren barruan, astearterako, eta, larunbaterako, bisita gidatua Gloria Fuertes poetaren mendeurrenari buruzko erakusketara.

Horrez gain, Nafarroako Liburutegiak euskarazko saio berri bat hartuko du, asteazkenean, “Ongi etorri ipuinetara” haurrentzako zikloaren barruan, bai eta


“Estudiando las afinidades electivas, de Johann Wolfgang Goethe” solasaldia, “Literatura unibertsalaren zortzi milakoak” zikloaren barruan, zein, ostiralean, “Muerte digna y eutanasia” hitzaldia ere, Manu Eciolazaren eskutik.

Zineak, aldiz, ekitaldi hauek ekarriko dizkigu: “Encadenados”, Alfred Hitchcock-ena, asteazkenean; Nafarroa, Zinemaren Lurraldea lehiaketaren IV. gala, ostegunean; eta “La maniobra de Heimlich”, Manolo Vázquez-ena, ostiralean. Nafarroako Fimotekan izango dira hiruek, 20:00etan.

“Yo, la peor de todas/Ni, denetan okerrera” erakusketa-programaren barruan, bestetik, Marisa Belausteguigoitia artistak “Saber sobre el no decir. No decir sobre el saber: perspectivas decoloniales de la toma de la palabra” hitzaldia emango du, asteazkenean, Nafarroako Museoan, eta, larunbatean, Gentz del Valle-k “Marrazketa intentsua” tailerra zuzenduko du.

Halaber, Euskarabideko Paula Kasares Corrales-ek “Euskara XX. eta XXI. mendeetako Nafarroan” hitzaldia emango du, asteazkenean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian, “Euskara eta Nafarroa” zikloaren barruan, NAVARRORUM erakusketaren eskutik.

Huarte Arte Garaikideko Zentroak APERITIFAK zikloaren saio berri



bat hartuko du, larunbatean. Topaketa informalak izaten dira, tokiko mugimendu feministekin.

[Esteka](#) honetan duzu kultur programazio osoa.